NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

ESKULANAK MEZKIRIZ'EN



Makos Saragueta lanean. (AIDA argazkia)

Erroibar inguruetako euskaldunena degu erri au. Ureta aurrean dago, mendi babesean, kale luze baten inguruan zabaldua, Orreaga'ra dijoa errege bidetik pixko bat baztertua, errenkan ezarria, txuria ta polita. Eliza bere dorrearekin ertze batean dago; San Kristobal'en Izena darama. Barrenean ba dauzka lau ola landuak amasei garren gizaldikoak, onak, platereskoak; Pente k o s t e s, Jaiotza, Igokundea, Erregen Gurtza, baita ere San Sebastian'en irudia garai berdiñekoa. Erri onek bi auzo ditu, Txorrondo ta B i r i t x i k a r. Orain danetara 35 eendi bizi dira.

Mezkiriz'ek beste gauza askoren artean ba dauka berexitasuna bat. Oraindik bizi dira bi gizon esku lanetan dabiltzanak. Markos Saragueta Zubiri bat, bere aitona ta aita bezela kuxeta egillea, 63 urtekoa, Etxetxiki'n bizi dana. Markos gizona ona ta jatorra degu, oso alaia gaiñera. Bere trebetasuna au erakusteko beti prest dagona. Zerbait galdetu azkero, naiz bazkaltzen egon ez du gauz aundirik bear altxa ta lanean jarduteko. Egunero, berreun kuxeta ia bukatzen ditu ta gero azken ikutua ematera Kataluña'ra bidaltzen d i t u. Bere lana ortan iayoa da. Ikusi bear marraza (Aiztoa), pikadera zilletzeko ta aizkora berexiakin ezpela eskuan artuta ebaki batzuek emanaz ze gauza ederrak egiten ditunak. Bere kuxeta oiek nola egiten ditun ikuste arren, bizpairu ezpela egurren zatiak eman zizkidan. Naiz egurra zuria ta polita izan, ikusten genuen argi esko zenbateraiño gizonaren l a n a k edertzen duan izadia.

Beste gizona eskulanetan Jarraitzailea, Manuel Billanueba da, 71 urtekoa, Zizilliarena etxekoa ta aberen yoarentzat, usteak edo egurrezko lepokoak egiten ditu, baita ere otarra saskiak. Gero saltzen dituzte periak egiten diran toki askotara eramateko. Sutan berotutako burui batekin marrazki soillak egiten dizkio ustearen egurrari; geienetan urritza ede erramozkoak dira.

Ez genuen uztegille bera ikusi, etzegon etxean, baiñan bere semeak erakutsi zizkigun aitaren lanak. Gazte onek ere noizbeinka laguntzen dio aitari. Ba daki nola egiten diran.

Eskerrak Elias Agorreta bertako erretorari, ezagutu nituan eskulangille a u e k. Apaiza au ez da nolanaikoa, euskalzalea, langillea ta oso argia. Alegiña guztietan dabil euskera berpizteko ta txistularlak sortzekotan. Bere lana guztiak merezi dute beste toki batean agertzea.

Ba dakit ondo asko, esku lanak azaltzeko ez naizela trebea, ortan degun gizonik argiena Juan Garmendia da. Berari uzten diot bear bezela Mezkiriz'ko eskulanak agertzea, baiñan bearrezkoa iduritzen zait beste askok gauza auek aipatzea.

Miaña ematen dit, gaurko egunean entzuten degunean adibidez, «esku lana auek aurki bukatuko dira «edo» gauza auen azken arnasa jasotzen ari gera».

Zorionez, eskulanak garrantzi aundia dauka gizonarentzat berez. Gizonak bere eskuekin zerbait egin bear du, orrek bizitzen laguntzen diolako, bere burua lasaitzeko ta bere bizitzaren inguruak goxatzeko. Ori ala diote gaurko sikologuak.

Gaiñera eskulana g u z t i auei ikusi bear litzaieke nola rentableak egin edo nola etekiña atera. Askotan gauza oiek errex salduko litzake eta gizonak ortik biziko lirake. Gaiñera eskulan oien bidez, erri baten teknika ta izakera azaltzen da. A l n errex iltzen uzteko arrazoirik ez degu.

Gaiñera zergatik ezin ditezke trebetasun olek erri edo baillara batean zabaldu neguan elurtetan lana gutxiago dutela beste bide bat egokia izan dezaten etxe bertan sosak irabazteko? Neguan etxe askotan asti asko galtzen da alperrik. Ori modu askotara eratu diteke, gure gizonak obeto bizi ditezen eta gure erriak bere nortasuna jatorki azaldu dezan.

Jakin bear luteke Mezkiriz'en eskulan oiekin aberastasuna aundi bat daukatela ta orreri aurrera bidea eman bear zaiola.

Iruña'ko Eusl a l e r r i k o Adiskideak» alkartearentzat ekintza polita bat auxe izango litzake, eskulan guzti auei indartzen, ezagutuarazten ta zabaltzen lagundu.

Orrela erri txiki askotako ekonomia jasoko lukete. Uste dut alderdi ortatik bide bat ba dagola Irikia, zerbait egiteko.

LATXAGA

Manuel Billañueba'ren lanak. (AIDA argazkia)

AXULAR SARIA

ERREGEN ERREGALUE

Pasatu zen aldi batez aur bat sortzean hil zaion ama, bere aita ere hil zaion bortz urte zituelaiken eta hunel bi su egiten ziona zen mozkorra, etzion begiratzen ere bigaltzen zuen eskatzera. Batzutan pasatzen zitzaion etziotela deus ematen eta zartak ematen zioten. Gizon hunek bazuen barride bat, andre bat aberatsa eta aldi batez andre aberats horren zerbitzariak ikusi zuen mutiko horrek zapatillak autsiak zituela eta eman zition andre aberatsaren aurrainak egun batzuek fiteago hila zena. Mutiko hau zagon deseatzen noiz allegatiko zen erregen eguna. Utzi zuen zapatil bat leioan eta bertzea zuen zangoan. Egun batez bigalia zuen eta etzion ekarri deus, orduen bigalizion gizon harek etxetik kanpora eta atse hartan in zuen lo kanpoan. Ondoko egunean eldu zen beiti andre hure eta han ikustean ainbertze yende galde egin zuen:

—Zer pasatzen da hemen?

Orduen kontatu zioten pasatue, orduen andre harek pulsue hartu eta oñik bizi zela zagutu zuen. Gan zuen bere etxera eta abisatu zion medikuai. Hartu zuen konozimentue eta begiek edekitzean erran zuena zen:

—Zer ekarri datet erregek?

Hau aitzean andre hure onduratu zitzaion eta musu ematean berean erran zion:

—Ekarri datzute ama bat. Gustatzen zaitzu?

Orduendik zoriontsua izan zen.

MARIA LUISA ARIZALETA
ORABIDEA 13 urte.
(Konzezionisten eskolakoa). **ELIZONDO.**

OLLAR EBATSIEK

Bazuazin bere herrira bi mutiko eta pastu ziren ostatu batetik. Kusi zuzten bi ollar aserre ai zirela aserre odoletan. Bi mutikuak gan ziren ikustera, batek erran zion bertze mutikoai:

—Hobe da hartu eta gaten baitugu etxera.

Allagatu zirelaik etxera mutiko hek erran zioten amari, hiltzeko ta prestatzeko ta yain zutela iruen artean. Gero guatzera ganta aitu ziren mutikoak konfesatu behar zutela. Bieramunean gan zen mutikoetaik bat konfesatzera eta apezai erran zion:

—Ave maria Purisima.

Eta apezak erran zion:

—Sin pecado concebida.

Hasi zelaik konfesatzen erran zion mutikoak:

—Lengualdien lagun betek eta nik ebatsi gintuen bi ollar.

Apezak erran zion:

—Orduen inbiartuzue bien artean erosi bi ollarrak.

Orduen atra zelaik elizetik erran zion bere lagunai entregatu behar zuztela bi ollarrak.

Bertzia gan zen konfesatzera eta erran bear zion apezai bi ollar arpatu eta hekin afaldu zutela eta apezak erran zión:

—Hola in beti eta Yangoikoak premietiko datze.

MARIA KARMEN IRIBARREN
ERRATZU. 12 urte.

AIREKOEN BAHITZE

Duela bizpairu urtetik hunarat, airekoen bahitze eta ebasgo aunitz izan dela munduko guztietan, nork ezdaki? Jendea izitua dago, airez ibili behar duena bereziki. Ezen diru asko ordainduz, aireko batean sartzen bazara, Canarias-etara joateko asmoarekin adibidez, ezduzu izialdura ttipia iasanen bat batean arrabots bat entzuten baduzu zure alkitik, norbaitek oiukatzen duela memento berean. **Trankil denak o t o i, bortxatzen gaituzte Algeriara joatea!,** edo berdin tiro batzu aditzen badituzu mekanikoaren kaiolatik, batere geiagokorik jakin gabe, ez eta nola bururatuko den ixtripu beldurgarria.

Zertako dutea lapurr-ohoinek halako arrakestarik kasu geienetan?; ez ote dezake zaintzaleetarik batek a r m a batez halakoa geldiarazi? Ez, arrisku aundia baita, lapurra edo ohoinak bonba bat bota dezan jendearen kontra, bai eta airekoaren estalkia edo pareta zilatu; orduan ontzia eror daiteke, denak lertuz lurraren kontra. Berdin gidari edo pilotoa tirokatu dezake ohoinak, harek obeditzen ezpadu, eta orduan aireko egalaria zuzenbiderik gabe, galdua dagoke.

Ohoin edo iraultzaile horiek fanatiko batzu baitira edo kriminel, eta bi kasuetan, bizitza galtzeko eraberik batere gabeko. Ongi ikusia da hau Munich-eko olinpiajokalari juduak bahituak izan zirenean; palestinoek gaizki ikusi zituztelarik beren buruak, bonba bat zapart-arazi omen zuten, bere buruen kontra izanik ere. Bestek diote halabainan, sarraski hori aleman gardien bizkar botatzen.

Aterako dutea salbabiden bat, aire-konpañia eta gobernuen arteko batzarre horietan? Ikustekoa dago, baina ni bildur; airekoen Bazkun edo Konpañiekoeri ezpaizaie ardura, andere eta gizon bidaiant dohakabeen bizitzaz; hauek baino aise maiteago dituztelako beren irabazpide ikarragarriak.

Irabaziak eta irabazpideak ez galtzearren, Munich-eko sarraskiaren ondotik jokoak ez zituzten eten edo geldiarazi, bihotz apur bat duten guztiek espero zuten bezala.

ANAIEN ARTEKO GERLAK

Zertarako segitzen d u t e gerlek, hiltzeek eta sarraskiek hainbeste tokietan? Armen eta txispen egile et merkatariek irabazi espantagarriak egiten dituztelako; horiek herrialde miserableeneri salduz; odol ixurtze eta pairamen ezin sinetsizkoak gertatzen direla orain **Vietnam**-en, lehenago **Biafran** edo **Burundin** bezala? Eta zer zaiote merkatari aberats okitueri? Dirugose ezin ase dira horiek eta beste gizajendeen pairamen eta galtze, batere etzazkiote beren irabazpideen aldean.

IPAR - AMERIKA - KO PARADISUAN

U.S.A.-n hainbeste erailtze, ebasgo eta izigarrikeri, zergatik gertatzen dira? Libre delakotz erresuma osoaren bizilagun guztieri, berdin on edo gaixtagin izan, berdin ero edo sendo, ttipi ala aundieri, armak saltzea edozein botiga edo saltokian, batere ageririk erakutsi gabe. Postaz ere, merke eros dezake edozeinek armarik azkarrena. Aipatu izan da behin eta berriz, arma-saltze eskandal-hori debekatu behar lukeala USA-n Parlamentiak, bainan beti oiu batzuetan gelditu da dena. Armeen fabrikanteak aberatsak direlako, ahalmen aundiko; diruarekin edozein konzientzia eros omen daiteke, eta mingaiñak ixilaraz.

New-York-en, zenbait karrika eta auzotan, egunaz ere ezin ibil ditake segura; edozein gaix t a g i n oldartzeko arrisku bizian omen da bat, bakarrik badoaie, nornaiek arma bat sakelean izaten ahal duelako, 14 urteko neskatiko txar batek ere.

AUTOEN ARRISKUAK ETA JENDEEN BAHITZEAZ

Zergatik ezditutze erregebidetan egunero gertatzen diran auto-ixtripuak geldiarazten? Altaa, erreza litzakela iduri du, etxeak dauden bide guztietan behartzea legez, 50 kilometroko lasterra baino gutiago eraman dezaten beribilek. Halako zerbait erabaki ordez gobernuek, **Le Mans** edo **Monza** eta halako lasterketa ikaragarri horiek sustatzen eta laguntzen dituzte. Erokeria aundiagorik ezinda amestu ere; zergatik hori dena? Diruarengatik, ikuskakari hilgarri horietatik zerga joriak biltzen dituztelako.

Eta jenden bahitzeaz zer esan? Ezin onetsizko egitate gaixto bat dela, gizon zuzenaren sendimendua aundizki kolpatzen duena. Pertsona baten bahitzerik ezinda iñolaz ere onartu, nornai izan dadin bahitua, on edo gaixto, gure aldeko izan dadin ere bahitzailea.

Bahitzaileek aitortzea xede onetan dabiltzala, gerta daiteke, bai eta bahituaren kontrako gaizkirik egiteko asmorik batere gabe; baina asi lan hau azpiz-gora buelta zaioteke bahitzaileeni, halako arrisku aundiko egitatea nola bururatuko den ezpaitaki batek.

Halabainan, bahitze iduri ezduten egitaterik ere bada, funtzean hala direla; norbait preso atxematen dutelarik bezala, geiagoko arrazoinik gabe, Paraguay-en, Txekoslobakian edo Rusian gertatzen d e n bezala; bidegabekeri h o r i e k azkenean, ondorio txarrik dakarkete.

A. APAT ETXEBARNE

IRUÑEKO EUSKALDUN ZERAN HORI, KASU EGIN HONI!

Artxapezpikuaren Jauregitik orri hau igorri digute «euskal Orri» hontan azaldu dezagun.

Begi onez eta pozez beterik gainera argitaratzen dugu.

Iruñeko Eliz Barrutiaren euskerazko Eliz-lanaren gain dagon Batzordeak orri hau zabaltzen du.

Euskeraz eta erderaz ezarri dugu erdalduneek ere iakin dezaten.

IRUÑEKO MEZA SANTUAK EUSKERAZ

Larunbata ta Besta Bezperetan

Jesuiten Elizan (Bergamin, 32)	arratsaldeko	6'30-etan
San Pedro Parrokian	arratsaldeko	7'00-etan

Igande ta Besta Egunetan

San Martín Parrokian (Burlada)	goizeko	9'30-etan
Katedral ondoko Karmelitetan	Eguerdiko	12'00-etan
«Damas Apostólicas»en Elizan	arratseko	8'30-etan

Egunero

Jesuiten Elizan	arratsaldeko	7'00-etan

Jainkoarekin itzegiteko, aurtzaroko mintzaera izan oi da erosoena.

Berakin jarduteko egokitasuna, Meza auetan arkituko dezu, zure arbasoek bezala, kristau sinismenean ta oitura onetan tinko iraungo dezu, bai zeureganako, bai besteenganako eginbearretan.

Mandaturen bat eman nai badezu, (arratseko 8'etatik 10'etara) ona emen urrutizkiñak:

San Pedro Parrokia	21-17-95
Jesuiten Eliza	23-38-00
San Martín Parrokia	24-08-86
K. Ondoko Karmelitak	22-27-67
Damas Apostólicas	23-10-81
Idazkaritza	22-62-07

IRUÑAN EUSKERAZKO ELIZ-LANA

SANTA MISA EN EUSKERA

Sábados y Vísperas de Fiesta

Parroquia de San Pedro	6'30 de la tarde
Iglesia de los PP. Jesuitas	7'00 de la tarde

Domingos y Días Festivos

Parroquia de San Martín (Burlada)	9'30 de la mañana
Carmelitas juntos a la Catedral ...	12'30 del mediodía
Damas Apostólicas (Galicia, 16) ...	8'30 de la tarde

Todos los días

Iglesia de los PP. Jesuitas	7'30 de la tarde

Para hablar con Dios, la lengua materna suele ser la más apropiada.

En estas Misas tendrás una ocasión propicia para hablar con El. Así, a imitación de tus antepasados, te conservarás firme en la fe cristiana y en las buenas costumbres, tanto en tus deberes personales como en los sociales.

Si deseas dar algún encargo (de 8 a 10 de la noche), aquí tienes los teléfonos:

Parroquia de San Pedro	21-17-95
Iglesia de los PP. Jesuitas	23-38-00
Parroquia de San Martín	24-08-86
Carmelitas junto a la Catedral	22-27-67
Damas Apostólicas	23-10-81
Secretariado	22-62-07

SERVICIO PASTORAL VASCO EN PAMPLONA

EUSKALERRIAN BARNA

«EUSKALDUNTZEN» euskera ikasteko liburu berria

Bilbotik ekarri berri dugu euskeraz irakasteko «Euskalduntzen» izeneko metodo berria. Cinsa Etxeak argitara eman du berriki. Esan behar da liburu hontan erakasten duen euskera **«euskera batua»** delakoa dala; hau da «Euskal Herri» guzian entenditzen ahal dan euskal mintzaera metodo hontan ikasten da. Euskera batuen beharrean geuden aspalditik eta azkenean etorri zaigu zoriones.

Liburua txukun eta apaina azaldu da. Gaia oso interesantea bada, euskera batuan euskera erakastea, azalez ere egokia da benetan: Irudi eta itxuraz laket eta atsegingarri izanen da guzientzat.

«Euskal Irakaspide» hau aurrei txit egokia izanen delakoan nago.

Lehen maillako liburua da aurrentzako erakastekoa. Dio tenez geroan bigarren eta hirugarren maillako liburuak etorriko dira euskerakin aurretatuak daudenentzako. Esan Behar dut liburu hau adineko diren euskeraz Itzik ere ez dakitenentzat ere aukerakoa dela.

Euskal metodo hau egin eta prestatzeko ari izan direnak hauek izan dira: R. Badiola, J. R. Etxebarria, J. I. Intxaurraga, X. Kintana, J. Legarreta, J. A. Munduate, J. J. Zearreta eta J. L. Goikoetxea. Beraz liburu honen lana Talde Batena izan da. Lan neketsua, luzea, izugarria. Metodo hontan agertzen diran irudiak 500 baino gehiago dira, eta berebiziko lana dela ez da esan beharrik.

Liburua moldatzeko ingeles ikasteko gaur **eguneko erak** eta bideak «Eg le - Taldeak» erabili ditu euskal metodo berri eta oraingo tankeraz ornitua gertaturik.

«Euskalduntzen» delako a, salgai dago. Edozeinek eskutara dezake zuzenbide haue tara izkribiturik: Cinsa-Avenida del Ejército, 18-3.° Bilbao 14.

Bertsolariak Elizondon

Elizondoko seme den Mariano Izeta jaunak esan didanez aurki Elizondon **«Bertsolari Besta»** Izanen dugu.

Datorren Urriaren 27 egunean, ortziralean, (Feri egunа Elizondon) Antxitone'ko Trinketean eta arratsaldeko bortzetan lau bertsolari hauek egin beharra dute: Mattin, Lasarte, Agirre eta Lazkao-Tx ki.

Bertsolari saioketa hau Diputazioaren laguntza eta baimenarekin eginen da.

Badakizute bada euskaldunak!. Eldu berri den hil, hontako 27'ean, arratsaldeko bortzetan Elizondo-ko Antxitoneko Trinketean «bertsolariak» ariko dira.

UZTAPIDE'ri Omenaldia Donostian

Manuel Olaizola «Uztapide» bertsolari on eta prestua baditu zenbait hilabete eri dagoela bere Oiartzun'go etxean ezin kanporaturik. Donostiako Turismo Etxeak antolaturik ioan berri den Iraila ren 24'ean «Astoria» delako Zineman Euskal Herriko bertsolar ek omenaldi ederra eskeindu zioten.

Amairu bertsolari bildu ziren egun hartan «Astoria» zineman bakoitzak bere etorri, trebetasun eta ahalmenak bertsoetan azalduaz Uztapide haundiari omenaldi sentikorra eskeindu nahirik.

Donostira joan ziren bertsolariak hauek izan ziren: Basarri, Lasarte, Xalbador, Lizaso, Mattin, Mitxelena, Garmendia, Egilegor, Agirre, Lazkano, Lazkao-Txiki, Arotzmena, Mugartegi eta haukin batera bertsolari bilizar honen gidari eta gai-emaile zen Iriondo.

Bertsolarien ondotik Uztapide'ren bertso zoragarriak entzun zituzten denak mag notofoan artuak zergatik, lehen esan dugun bezala, «bertsolarien aiton, txapeldun eta nagusia» etxean geldirik dago ezin atereaz.

Besta «Gernika'ko Arbola» kantu hunkigarriarekin amaitu zan.

Goraintziak bidaltzen dizkiot Uztapide gaixoari eta bide batez laister sendatzeko desiua.

IKUSLE

ERABATEKO ITZULKETA BAT

Joan etorriak ba dituzte beren momentu alai eta illunak edo tristeak. Danok ibiltzen edo ibilli geranok momentu oiek igaro edo pasatu ditugu. Edozeñek irrutira joateko ateratzen danean eta biotz gogorrekoa ezpada negar malkoak ixuniko ditu. Orregatik ezta lotsarik izan bear batez ere Jaungoikoak biotz biguñekoak egin ba gaitu. Au dena gertatzen zaigu ez erri batetik bestera joaten geranean, eztare ziudade edo uri batetik beste batera joan bearra daukagunean, naiz bata bestetik irruti xamar egon. Au gertatzen zaigu nazio batetik beste batera joaten geranean eta geiago kontinente batetik bestebatera joateko ateratzen geranean. Orduan bai gure biotza biguntzen dala eta negar malkoak nai ta naiez ateratzen zaizkigula.

Bidan e g u n asko igaro ba ditugu eta gure illuntasuna igaro edo galtzeko denbora izan ba degu orduan bai beste aldera sartzen g e r a nean an datorkigu alaitasuna eta poza. Jaungoikoak mundu ontan gauz denetatik jarri dizkigu eta bigarrenok zoriontsuak egiten gaitue. Danak onez artu ezkeroz eta beraren borondateakin konformatuko ba giñake oraindik zoriontsuagoak izango giñake.

Amasei urte luze dira nik, meza berria aurreratu eta, Ameriketa aldera joan bearra izan nuana. Zenbat eztira pasatu orduezkeroz! Zenbat tokitan enaiz ibilli! Toki asko ikusi ditut baña bi tokitan bakarrik egon naiz bizitzen. Lenbizi Buenos Airesen bost urte egon nintzan ikasten. **Zienzias esaktas** deritzaizkionak ikasi nituan, au da, profesore zenbaki edo matematiketan, baitare fisika eta kimikan. Karrera bukatu nuan baña baitare esamiñeki nekatu eta aspertu. Azkena o g e i ta bedratzi urtekin eman nuan.

Andik Saltara joan nintzan profesore edo erakusle bezela. An egon naiz amaika urte gazte tartean. Lan latza benetan, au da g a z t e a k zuzendu eta betiko bide zuzenean jarri eraztea gaur gauza zallenetakoa. B e r a k eta askotan beren gurasoak ere bai buruko miñ asko eman dizkigute. Buruño Miñaz gurasoak ematen diztigutenak eztira erakustean bakarrik, baitare zuzenbide ortan berak askotan bide zuzenetik eztabiltzelako eta bristauak bezela bide zuzenak eztutelako ikusten. Zuzen zuzenak gutxienak dira, baña oiek poztutzen gaitue ikustean zer edo zer egin degula.

Amaika urte auetan apaiza bezela, ikastetxetik kanpora, beste gauz asko egin bearrak izan nituan. Nola aztu M.F.C. edo mobimiento familiar kristianoan nerekin batera ibilliziran gurasoak! Oraindik geiago Lejion de María'koak! Ainbeste toki eta ainbeste jende Lejionario tartean, gizón eta emakume miragarriak, ezagutu ditut. Ze ikasbideak edozeñentzako! Oroigarri onenak legionario engandik ditut.

Auzo oso txiro edo pobre batean komisioa jarri eta eleza jasotzen asi bear gi[illegible]nean, nik beste auzo batera joan bearra izan nuan, toki berri ortan bikario izendatu ninduelako. Bikaria o r r e Nuestra Señora de Fátima du izena, eta zurerko txabolazar batean ematen da meza. Ogei urte baño geiago ba dira eleiza asteko asmoakin zeundela eta azkenean gu[illegible] asi genuan. Orain ni atera naizenean erdi eginda geldi tu da. Toki oietan nola mate diote apaizari! Nola, baztu batekin urte askotan lenean ibilli eta ainbeste mate gaituenei! Ezin diteke. Aiko adiskideak betiko agurzean nola, ba, biotza illuntsunez ez bete? Amabost eguneko b i d e a n urontzian illuntasun ori galtzen da eta alaitasuna egertu ere bai.

Bai alaitasuna eta poza egertzen dira txokoa gero ta gertuago ikusten danean. Asten zera jaioterrian, etxean, guraso, anaia-rreba eta ezagun denetan pentsatzen eta illuntasuna alaitasunean biurtzenda. Geiago gañera, pentsatzen ba dezu erabat etorri zerala. Nik ezer uste enuenean atera zaiten erabateko itzulketa au, nere nagusiak ala agindu zindatelako. Bilbao sartu eta asi ere ba nere apaiz lanetan. Jaungoikoak eta nere nagusiak nai dutenarte.

FELIPE ARAÑA